

Zumaiako herri aldizkaria

1998ko maiatza

BALEIKE

100 pta.

46. zenb.



● Euskal
selekzioaren
inguruan
Martxel
Toledorekin
elkarrizketa

● San Telmoak
argazkitan

● Itxas Gain
Espainiako
azpitxapeldun

● **Inda-Mendi: 25 urte
gailurrean**

IV Baleike komiki lehiaketa



BALEIKE

Baleike Zumaiaiko herri aldizkariaren laugarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen edizio berri bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiaarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitetze parte hartzera!

- 1.- Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
- 2.- **Pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak** izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
- 3.- Marrazkiak **txuri-beltzean** eginak izango dira, eta luma, errotuladore, pintzel edota boligrafoz egin ahal izango dira.
- 4.- Lanak **bakarka edota talde lanean** egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, euskarazko lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa da gurea.
- 5.- Lanak 1998ko uztailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:

FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAIA

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean "ZUMAIAKO IV. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA" eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobreetan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

- 6.- Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuan emango dute aditzera beren erabakia.
- 7.- Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitaterik ez balute, sariak eman gabe gera litezke. Bestalde originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzen.
8. Honako sari hauek ezarri dira:

1. saria	25.000 pta
2. saria	15.000 pta
Zumaia onenarentzat	15.000 pta

- 9.- Saritutako lanak Baleikeren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
- 10.- Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeren jabegopean geratuko dira.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzazko kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Amaia Benito
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa
Juan Luis Romatet
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor, Josu
eta Arantxa, Igone eta
Nerea, Rikardo
Zengotita, Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Manu Uranga

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazloa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro
Ainara eta konpainia

Publizitatea

Iñaki Zubimendi
(943 143226)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Logurea



Iratxe Aizpurua

Astelehen goizeko zazpirak dira eta despertadoreak egunerokoari jarraituz egunonak (edo txarrak?) eman dizkit. Ez al zaizkio behingoagatik pilak bukatuko! Bukatuko bazitzaizkion ez nintzateke fakultatera joango, lo pila ederra egingo nuke; ze ondo nagoen erdi lotan...

Astelehen goizeko zazpirak eta bost dira eta despertadoreak ez du amore ematen. Ni egozkorra omen naiz, baina bera ere ez da ni baino gutxiago. Azkenean, burumakur jaiki behar izan dut elkarri gorrotoz beteriko begirada bat luzatzen genion bitartean; "gaur gauean hamarretarako ohean nago!"

Presaka dutxatu, gosalduta eta apunte erdiak etxean utzita geltokira noa. Oraindik ez dut esnatu nahi eta autobusa iritsi bezain laister barrura sartu eta bigarren loaldiari ekiten diot.

Bilbora iritsi eta esnatzea beste erremediorik ez dudala konturatzen naiz, eta pixkanaka-pixkanaka nire arerioa den despertadorea eta laguna den ohea pentsa-menduetatik ihesten zaizkit berriro ere Zumaiara bueltatzeko autobusean sartu bitartean. Behin etxera iritsi eta gero, afaldu eta ohera joan aurretik "Kaja-tonta-reakin" zita dudala konturatu naiz Sardá-ren konpainian, eta nire logureak ihesi aldegin du gauerdian bueltatzeko intentzioarekin. Bihar berriro eguneroko diana.


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka	14 32 64
Polikiroldegia	86 20 21	Tren geltokia	86 11 27
Gurutze gorria	86 10 93	Taxi geltokia	86 13 60
Udaletxea	86 02 50	Bake epaitegia	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00	Posta	86 15 00
Osasun zentrua	86 08 62	Udaltzaingoa	86 18 70
San Juan Egoitza	86 12 73	Pilotalekua	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00	Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Musika eskola	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	86 02 48
Alkoholikoen senideak	47 54 03	Sexu-informazioa	32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala



Plaiarotako antolakuntzako kideei

Lotsagarriak iruditu zaizkigun portaera batzuen kexa adierazi beharrean gaude, batez ere berriro gerta ez daitezen. Antolakuntzako zenbait kidek talde batzuekin eduki duten aurkakotasun eta txapelketatik kanpo uzteko gogo hori da batez ere salatu nahi duguna. Ez gara zenbait jokalarikaleratzeaz kexatuko, txartel asko ateratzea merezita zeudela ziur baikaude, baina garbi utzi nahi duguna zera da, atera diren txartelak asko, antolatzaileek arbitraztean zenbait talde eta jokalarizorratu nahiaren ondorio zirela, arazopertsonal eta zenbait kasutan (lotsagarriena iruditzen zaiguna) pentsamendu politikoetan oinarrituta. Batez ere bi pertsonenganako kexa gogorra egin nahi dugu eta izenik aipatuko ez badugu ere zuek ederki dakizue nortzuk diren horiek. Antolakuntzak ez badu neurririk hartzen, zenbait taldek behintzat gure neurriak hartuko ditugu datorren urteari begira, ez baitugu galdu nahi herriarren arteko lehia eta aldi berean sortzen den adiskidetasun giro hori.

Estazioko bidea dragatuz

Ez nihoa ezer berria esatera, kexa berdina askotan entzun eta baita irakurri ere egin dudalako. Baina trena hartu beharrean nagoen bakoitzean gauza berdina datorkit burura: badirudi Santixoko padura dragatzeko ekarri dituzten makinak estazio aldean dabiltzala lanean horaurki daitezkeen zulo, batxe eta antzerakoen kopurua ikusita. Eta konparazio hau erabiltzen det, lotsagarria iruditzen zaidalako Kirol Portu famatua egiteko hainbeste diru gastatzen ari diren bitartean inork ez duelako ezer egin hainbeste urte gaizki daramatzan estazio aldea konpontzeko, nahiz eta egunero zumaia askoren pasagunea den.

San Migel aldera mugitzen diren zumaiaarrak ez dira hainbeste, baina azkar konpondu zenuten bidea, ezta? Ea estazioarekin ere berdin gertatzen den.

INPERNUPE PLAIERO TALDEA**KARMELE**


Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ANA

ETXERO ZAPIAK



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak



Zumbillo, 4 Tel. 861407



Jon Sudupe

Gizaki teleikuslea

Aurrerapen zientifiko zein teknologikoek iritzi eta jarrera kontrajarriak sortu izan dituzte beti ere. Hala gertatu da liburuarekin eta, oraintsuago, telebistarekin. Batzuk alde, besteak kontra. Integratuak eta apokaliptikoak deitu die horiei Umberto Ekok. Integratuak komunikabide berrien kulturaren aldeko amorratuak dira. Apokaliptikoek, beren aldetik, berrikuntzen alderdi kaltegarriak agerian jarri eta salatu ohi dituzte.

Giovanni Sartorik bere *Homo videns* izeneko liburuan gogor kritikatu du telebistaren erabilera. Berak dioenez, gure pentsakera ez ezik, gure izaera bera aldatu omen du. Ordu gehiegitan telebista ikusteak ulermena ahultzen digu. Jende inozo eta txoriburu bihurtzen gaitu. *Homo sapiens*-en orde, mamutxo bat ari gara sortzen, bideo-haurra, alegia. Telebistak ergelkeria sustatzen du. Pentsatzera bultzatu beharrean, ikus-entzule pasibo bihurtzen gaitu. Hori dela eta, denbora moderno-etako lehergailurik arriskutsuena iruditzen zaio Sartoriri.

Sartorik dioen bezain arriskutsua ote da telebista? Gaitz guztien eragile eta errudun ote da? Deabruzat hartu behar ote dugu? Inprenta eta zinea bezalaxe, zientziaren lorpen handia izan da telebista, zalantzarik gabe. Haiek ere deabruzat hartuak izan ziren garai batean. Muturretatik urrunduz, erdibidea bilatu beharko genuke hemen ere. Mendebaldeko kulturaren oinarria liburuak izan bada ere, gaurko mundua pentsaezinekoea da telebistarik gabe. Ezinbesteko tresna zaigu gure eguneroko bizitzan. Telebistak eta liburuak ez dute zertan arerioak izan behar. Irudiak, gainera, ez du hitz idatzia baztertu, ordenadorea dugu horren agerpen garbia.

Egia da telezaborra ugaltu dela azkenaldian. Ikuslegoa gehitzearren, morboa, sentsazionalismoa eta eskandalua darabilte sarritan. Horregatik, Karl Popper zenak, bere azken testuetako batean, gogorki salatu zuen telebistako indarkeria, eta neurri zehatzak proposatu zituen biolentziari aurre egiteko. Eskolak, bereziki, ez dauka begiak ixterik telebistaren aurrean. Bere arduratako bat izan behar du teleheziketak. Guraso eta irakasleoi dagokigu, batez ere, teleikusle autonomo eta kritikoak hezitzea.

ANDARIKA

Zumaiako portuari

*Mila zorion eta
lehenengo urtian
zalantzaren hamalau
garren ilunian
Zumaiako herriko
barraren aurrian
Portua agertu zen
Santixo aldian.*

*Berez ederra dena
zergaitikan jantzi
Hondatu, aldatu, saldu
ta lurra irentsi
baietz beraiek esan
bihar edo etzi
marea noiz behar den
igo eta jeitsi*

*Daukaguna zaintzea
ta erakustea
datozenek ikusi
eta mirestea
gauzak diren bezela
gozatzen uztea
zein turismo da ona
hau ala bestea?*



ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAI
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485

Hilabeteko atzipenaldia eta 55 milioiko isuna Erneko akusatuentzat

Epaiak porlanaren kalitate eskasa jotzen du eragiletzat

Narziso Korta jabea, Inazio Egaña kontratista eta maizterra, Castor Agirrezabala aparejadorea eta Fernando Gajate arkitektoa hilabeteko atzipenaldiarekin (arrestoa) zigortu ditu Donostiako Penaleko Auzitegiak zuhurtzigabezia larriko delitu

bategatik. Berebat lau akusatuaren artean 55 milioiko indernizazioak ordaindu beharko dituztela ezartzen du epaiak.

Lokalaren gerentea den Jesus Mari Esnali ez zaio zigorrik ezarri.

Bestalde, epaiaren hitzetan, pistaren erorketaren eragile nagusia dantza-lekua eraikitzerakoan erabilitako porlanaren kalitate eskasa izan zen eta ez kontzertura jende gehiegi sartu izana.



Anbulategiaren inguruko kontu batzuk

Eraikina txikia gelditu zaie

Zerbitzu berri dezente garatu dituzte ambulategian duela lau urtetatik hona. Zumaia-ko zentro pilotoa izan zen Gipuzkoan ambulategien informatizazioan eta medikuntza familiarra nahiz erizaintza espezialitateak eskaintzen dizkiete medikuntzako ikasleei. Ispirometroa, desfibriladorea eta gisa honetako hainbat aparailu erosi dituzte, eta programa berriak ere,

proba alergikoak eta sintron kontrola esaterako, jarri dituzte martxan.

Hazi egin dira eta txikia gelditu zaie trajea. Espezialitate berriak ekarri nahi dituzte baina ez dute hauek jartzeko tokirik. Gainera igogailuaren arazoa ere hor dago. Ambulategia eraikin historikoa izanik ezin dira igogailua jartzeko behar diren

erreformak egin, eta beheko solairuan atenditu behar izaten dituzte eskailerak igo ezin dituzten elbarri eta agureak, beheko gelak bestela ere okupatuta daudenez honek dakartzan deserosotasun eta itxaron beharrek.

Udaletxeari egin diote zentru berri baten eskaria eta Osakidetzarekin ere bildu dira gaiaren inguruan hitz egiteko. Dirua behar duten ambulategien zerrendan jarri ditu Osakidetzak. Oraingoz itxaron egin behar.

Larrialdietarako sendagilearen ingurukoak ere atera zaizkigu mahai gainera. Nahikoa erreta omen daude kontu honekin. "Arazoari eman zaion propagandarekin badirudi herriko osasun zerbitzuak behea jotzen ari direla, eta hori ez da horrela" komentatu digu Patxi Ezkurra sendagileak.

Azkenik argi utzi nahi dute zentroa larunbatetan ere irekita dagoela.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**



Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

Udal liburutegiaren obrak direla eta

Gela txikiagoan bada ere zerbitzu gehienak martxan

Martxoaren erdi aldera hasi zituzten liburutegiaren berrikuntza lanak. Helduen liburutegian bi gelen arteko pasabidea zabaldu egin dute lehenagoko atearen tokian arku handi bat irekiz, eta liburuzainaren bulegoa eta irakurgelaren arteko horma bota egin dute kristalera bat jartzeko. Hemendik aurrera liburuzainak bista-bistan izango ditu liburutegian dabil-tzanak eta errazago kontrolatu ahalko du formal portatzen ote diren. Kableen instalazioa ere ari dira birran-tolatzen, gerora ordenagailu gehiago eta sistema berriak sartzeko aukera izateko.

Obrek dirauten bitartean hitzaldi aretoaren ondoko gelan jarri dute liburutegia behin-behineko. Mailegu zerbitzua, internet, eta egunkari, aldizkari eta artxibo historikoaren kontsulta eskura daude behar ditue-narentzat. Egokituriko gelan ez dago

Zumaiako Historia

Izenburu hau darama Lourdes Odriozolak Zumaiako historiari buruz egin duen liburuak. Seiehun orrialde baino gehiagoko lan honetan herriko historia guztia errepasatzen da, bere funda-ziotik orain dela urte gutxi batzuk arte. Artea, kultura, herriaren bilakaera, bertako ekonomia, festak ...

kasik lana egiteko tokirik (bi mahai txiki), eta liburu guztiak bertan sartzea ere ezinezkoa zitzaienez jendeak etxera eraman ohi dituenak behintzat jaitsi dituzte, helduentzako literatura eta haurrentzako ipuinak. Hala ere kabituzae entziklopedia bat edo beste.

Liburutegia informatizatzeko ere ari dira aprobeztatzen obren lapsus hau. Kode berriak ari zaizkie sartzen liburuei eta bazkideen txartelei, aurre-rantzean, OPAC deritzon programaren bidez, maileguak ordenagailuan erregistratu eta liburuak katalogoz bilatu beharrean ordenadorez egiteko modua izateko.

Hankaz gora dago orain lehen liburu-tegia zena. Paretak zulatuta, lurra altxata, kableak bistan, hautsa... San Pedroetarako bukatuko omen dute langileek beren lana. Hala izango ahal da!

Zumaiaren inguruan jakin nahi den guztia liburu honetan aurkituko da. Zumaiako Udalak babestutako lan hau uztailaren 4an aurkeztuko da. Euskaraz nahiz gazteleraz idatzia, oraindik pare bat hilabete igaro beharko dira herritarrok altxor hau esku artean izateko.



Itxura hau du orain, lehen liburutegia zenak.

Laburrak

Hitano ikastaroak aek-n maiatzetik ekainera bitartean

Zumaiako hitanoaren ikastaro bat antolatu nahi dute herriko aek-n. Joxe Fran Izpizua litzateke irakaslea eta maiatzaren 9-tik hasita, printzipioz larunbatetan, Ekainaren bukaerara luzatuko litezke klaseak. Izen emateak aek-n bertan egin ditezke maiatzaren 6-a bitartean.

Bestalde asmazak/n lehiaketaren irabazleen izenak ere eman dizkigute aek-ko: Nerea Etxebarriari Arkupen tokatu zaio gosaria, Naroa Idiakezi Txapartegin eta Manuel Egiazuri Errotan.

Zumaia Biziriken otarra

Dagoeneko azaldu da Zumaia Bizirik taldeak zozketatzen duen otarraren jabea: Bosko Garitano izan da aurtengo mariskadaren irabazlea, beraz, on egin! Zumaia Bizirikek eskerrak eman nahi die zumaiar guztiei laugarren urtez egiten den zozketa honek izan duen harrera onagatik.



Azkue Autoak

Tel. 861433
Faxa: 861067
Estazioko kalea, 19

AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9 Tel. 862441

balezulo

importaturiko erroa eta artisautza



Basadi, 3

Kirol portuko dragatze lanak amaitu dira momentuz

Iragarrita zegoen bezala, apirilaren amaieran bukatu dira paduran egiten ari ziren lehen dragatze lanak. Lan



hauek urrian jarraitu beharko dute oraindik ez baitituzte behar duten guztia dragatu. Proiektuan aurrei-kusten denez, dragatze lanak apirilaren amaieran bukatu behar ziren eta hau horrela gertatu ezean, urrian jarraitu beharko zuten.

Lehenengo dragaketa hauek azpiegitura lanak egiteko sakonera nahikoa lortzea zuten helburu eta hau hein

handi batean lortu da. Orain, kirol portua bera eraikitzeari ekingo diote, hau da, moila berriak, dikeak, esplanadak, hormak...

Badirudi momentuz behintzat kirol portu honen baitan sortutako gora behera guztiak inpas batean geratu direla. Gogoan izan dragatutako hondakinen ingurukoek zer nolako ezbaiak eragin zituzten. ◀

Kirol Portuko lanak aurrera doaz.

Txoko zoragarriak

Izenburu honen pean aurkeztu du Urola Kosta Mankomunitateak bailara honetarako gida turistikoa. Apirilean Laia museoan egindako aurkezpenean, hainbat agintari bildu zen eta bertan



azaldutakoaren arabera, Urola Kostako turismoaren beste aurpegia erakutsi nahi izan da. Orain arte, itsasoa eta hondartzeekin lotzen zen batez ere eskualde honetako turismoa, baina gida honekin, naturguneekin zuzenean lotuta dagoen beste turismo mota oparo bat dagoela erakutsi nahi da.

Alejandro Vazquez-ek burututako gida honetan, Gipuzkoar Kostaldeko herrietako inguruak ezagutu nahi dituenari ibilbide erosoak eskaini nahi zaizkio. Aukera zabala ematen da,

naturaz nahiz ibiltokiez, kirolaz nola isiltasunaz, gure kulturaz eta gure itsas mendien koloreez gozatzeko. Gida honekin, gainera, mankomunitate esparruko turismoa bultzatu nahi da, lokalismoetatik urrunduz.

Getariatik hasi eta Zestoaraino, gida turistiko honetan, hamazazpi ibilbide ezberdin aurkezten zaizkigu, bakoitzean aurki ditzakegun ekipamenduen berri emanaz gainera. Ibilbide bakoitza non dagoen kokatua ere azaltzen zaigu mapa praktiko batean.

◀ IGOR URANGA

Hainbat agintari bildu ziren gida turistikoaren aurkezpenean.

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3

Tel/Faxa: 143453

CORO
PRIETO
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Hilerriko zerbitzua azpikontratatu da.

Orain dela sei hilabetetatik, hilerriko zerbitzua enpresa batek eraman du aurrera behin-behineko iraupenaz. Sei hilabetez proba modura erabili da sistema hau, dirudienez, Udala gustora dago zerbitzu honek emandako zerbitzu mailarekin. Honegatik, hilerriko zerbitzuaren gestioa kontratatzeko lehiaketa arautuko duen baldintza pleguak onartu dira. Hauen arabera, hautatua suertatzen den enpresak, hiru urtez eskainiko du zerbitzu hau. Gogoan izan, orain dela sei bat hilabetera arte zerbitzu hau langile batek betetzen zuela, baina honek lana utzi ondoren, azpikontratazioaren bidetik jo du Udalak.

**Ilegala.**

Hitz hau azaldu da margotuta azken asteotan barrako horman. Barra ilegalak dela salatzeke asmoz, modu honetan nabarmendu nahi izan dute batzuek eta errepidetik begiratuta behintzat helburua lortu dutela zalantzarik ez dago.

ELA eta LAB sindikatuek aurkeztutako mozioa ez zen onartu apirileko plenoan.

EAJ eta PSOE-k kontra bozkatu zuten, EA abstenitu egin zen eta HBk aldiz, aldeko botua eman zuen. Bi sindikatuek Zumaiako Udalbatzari honako mozio hau onartzea eskatzen zioten:

- 1- Udalbatza hau bat dator lanaldia murrizteko helburuarekin, gehienez asteko 35 ordukoa sektore pribatuan eta 32 ordukoa sektore publikoan, murrizte horren bidez, aldi berean lanpostu berriak sortzeko. Horregatik, gizarte eragileei eta administrazioei neurri horiek aplikatzea eskatzen die Udal honek.
- 2- Lanik ez edota diru sarrera eskasak dituztenentzat oinarritzko errenta bat ezartzeko eskatzen dugu, Lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa.
- 3- Hauek eskatzen dizkiogu Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari/Nafarroako Parlamentuari: batetik, neurri horiek hartzeko eta, bestetik, behar direnak jar ditzala horretarako behar diren lege eskumenak lortzeko.

EAJ-k mozioa demagogikoa zela salatu zuen errealtatearekin zerikusirik ez duena. PSOE eta EAK mozio alternatibo bat aurkeztu zuten, baina hau ere onartu gabe geratu zen. HB berriz, mozioan agertzen diren planteamenduekin ados azaldu zen, justifikatuak eta posibleak direla azalduz.

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**Auto-konponketak****ELKAR****PEUGEOT**

Estazioko kalea

TEL. 860201

ekin
/elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+


CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



Martxel Toledo.

"Kirola gizartearen
ispilua da"

*Kirolaren euskal lege berria
plazaratzekotan den hilabete
honetan, ESAIT taldeko
Martxel Toledorekin hitz egin
dugu honen berri izateko.
Zumaiar batekin ezkondu
dagoen oiartzuar honek
ederki ezagutzen ditu euskal
selektzioaren aldeko aldarri-
kapenak izan dituen gora
beherak, eta lege berri honen
ekarpenak eta mugak. Euskal
Herriko Pilota Federazioko
idazkaria izan zen Kiko
Caballerorekin.*

■ Zer da ESAIT eta zer helbur ditu?

ESAIT duela bi urte sortu zen, baina hau duela lau urte Miarritzeko Munduko Txapelketan sortu zen beste plataforma baten haritik heldu da. Bere izenak esaten duen bezala, ESAIT Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea da, eta gure lehen lana izan da euskal gizarteak gai honen inguruan duen iritzia jasotzea. Horretarako hainbat mahainguru antolatu ditugu. Honetaz gain, beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu, esate baterako, Donostian egin genuen bizikleta martxa bat. Gure ardura nagusia euskal selektzioaren aldeko aldarrikapena egitea da.

*"Gure ardura
nagusia euskal
selektzioaren aldeko
aldarrikapena
egitea da".*

■ Euskal selektzioaren aldeko aldarrikapena aspaldikoa da, baina badirudi azkenaldian indarberriturik agertu dela.

Beno, gu duela lau urte hasi ginen lanean, baina orain dela zortzi urte Kubako Munduko Pilota Txapelketan euskal selektzioak parte hartzeko aukera izan zuen, nahiz eta ofizialtasunik gabe izan. Gero, Miarritzen pentsatu genuen tokia izango genuela, etxean jokatzeko baikenuen, baina ez zen hala izan. Horregatik sortu zen Gizakera Kultur Plataforma. Hor hasi ginen aldarrikapenak egiten eta mugimendu dezente izan zen. Hortik dator dena, orduan ez baikenekien lege berririk izango zenik. Nik uste dut legea horren ondorioz etorri dela, gizartean horren beharra ikusi delako. Kirolaren lege berri hau ekainean pasako da Legebiltzarretik.

■ Zer iruditzen zaizue lege berria?

Guk ESAIT bezala zenbait emendakin sartu ditugu, baina orokorrean esan daiteke lege oso abstraktua dela, nahiz eta euskal selektzioari aukera batzuk ematen dizkion. Dena den, lege honek ez dio euskal selektzioari inolako aukera ematen txapelketa ofizialetan parte hartzeko. Tarte batzuk uzten ditu selektzioak ofizialtasunik gabeko norgehiagokak joka ditzan, baina azken finean hori gaur ere gertatzen da. Guk ofizialtasun osoa eskatzen dugu.

■ Baina hori posible al da gaur egungo marko juridikoarekin?

Ez dago aukera handirik, baina badira zirrikitu batzuk. Adibidez, Britainia Handia osatzen duten nazioek euren kirol propioetan parte hartzeko aukera dute. Eta bestetik, badira kasu batzuk, guk baino autonomia maila txikiagoa izanda parte hartzeko aukera dutenak, adibidez Andorra edo Feröe Irlak. Hori kontutan izanda, gu errealistak gara eta badakigu marko honek aukera gutxi ematen dizkigula, baina zirrikitu horiek bilatu eta aprobetxatu behar dira. Horregatik lege hau ahalik eta irekiena izatea nahi dugu eta horren alde ari gara lanean.

■ Nazioartean parte hartzeko ez al da ezinbestekoa Batzorde Olimpikoa izatea?

Hauxe izan da guk sarturiko emendakinetako bat. Legeak ez du ezer aipatzen batzorde honi buruz eta guztiz beharrezkoa litzateke. Horregatik guk eskatzen dugu argi eta garbi ager dadila legean euskal selektzioa izateko aukera eta Batzorde Olimpikoa sortzeko beharra. Gure emendakinak alderdi batek defendatzen ditu, baina zoritxarrez badirudi besteek ez dutela bat egingo.

Politikariekin hartuemanak izan dituzue, nolako erantzunak jaso dituzue?

Kirola gizartearen ispilua da. Alderdi guztietako politikariekin izan ditugu bilerak eta denetik jaso dugu. Herri Batasuna guztiz bat dator gure planteamenduekin eta gure emendakinak berak eramango ditu Legebiltzarrera. EAK eta EAJk nahiko jarrera irekia azaldu dute, baina beraien ustez gauzak poliki egin behar dira, bestela beste alderdiek legea konstituzionalera eraman eta honek atzera botako duelako. Ezker Batuak erdiko jarrera hartu du, baina azken uanean esan digute gure emendakinak ez dituztela onartuko, beraiek gaur egungo egoera defendatzen dute. Eta PP eta sozialistak guztiz aurka daude.

“Realeko jokalaria bati eskatzen badiogu Espainiako selekzioa ez joatea, seguru Realetik apartatua izango litzakeela eta inongo aukerarik gabe beste talde batean jokatzeko”.

Eta Euskal Federazioak nola ari dira jokatzeko?

Azken batean Euskal Federazioak Eusko Jaurlaritzaren enborretik sortu dira, eta presidente gehienak kirol presidenteak baino politikariek jarritakoak dira. Gehienbat ez dira orain arte batere busti, salbuespen batzurekin. Esan behar da Pilota Federazioan Kiko Caballero beti azaldu dela euskal selekzioaren alde eta hortik sortu zen gaur egungo aldarrikapena. Besteek paper nahikoa iluna jokatzeko dute. Bustiko balira eta euskal selekzioa eskatuko balute agian politi-

kariak beste jarrera bat izango lukete. Baina politikariek esaten dute presidentek ez dutela horrelakorik eskatzen eta Federazioetako lehendakariak esaten dute ezin dutela eskatu politikariek ez dutelako legerik egiten.

Selekzioaren gaia aipatzen denean guztiok kirolariari begira jartzen gara, berak eman dezan lehen pausoa. Ez al zaie gehiegi eskatzen inolako babesik ez dutela kontuan izanda?

Horregatik esaten diegu guk politikariei une honetan ausartak izan behar dutela eta lege horrek horrelako egoerak babestu beharko lituzkela. Azken batean, politikoei egin behar dute legea eta besteok horren arabera funtzionatu. Hasten bagara kirolariari intsumisioa eskatzen etxea goitik egiten hasiko gara. Bakoitzak bere alorrean egin behar du lan, baina politikoei dute erantzukizun handiena, beraiek egiten dutelako legea. Kirolariei ezer eskatzea oso arriskutsua da. Beraiek presio handia jasaten dute. Realeko jokalaria bati eskatzen badiogu Espainiako selekzioa ez joatea, seguru Realetik apartatua izango litzakeela eta inongo aukerarik gabe beste talde batean jokatzeko. Horrelako planteamendurik ezin da egin gaur egun.

Espainiako selekzioari uko egiteak nolako ondorioak ditu kirolarientzat?

Fitxa bat sinatzen duzun garaian, selekzioak deitzen badizu jokatzera behartuta zaude. Zigorrek gogorak izan daitezke ezetza emanez gero. Guk lege hau aprobetxatu nahi dugu kirolariak ezetza emateko aukera izan dezan. Kirolariari euskal lizentzia bat eginez gero eta lizentzia horrekin edonon jokatzeko aukera izanez gero, Espainiako Federazioak ezingo lioke kirolari horri ezer kendu.



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta
zerbitzu teknikoak
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Baltasar Etxabe z/g Tel. 861175
Faxa: 860550

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6 Tel. 861078



Mertxe

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 - 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



Amaiako plaza z/g Tel. 860959

*"Legean euskal
selekzioa izateko
aukera eta Batzorde
Olimpikoa sortzeko
beharra eskatzen
dugu."*

**Selekzioaz gain, euskarak kirolean
duen presentzia eskasak ere
kezkatzen zaituzte.**

Hala da. Gu une honetan euskal selekzioaren aldeko aldarrikapena egiten ari gara, eta antolatu ditugun mahainguru, hitzaldi eta prentsaurreko guztietan euskaraz mintzatu gara. Batzuek esaten digute gazteleraz ere egitea ona litzetekeela guretzat jende gehiagorengana iristeko modua izango genukeelako, baina guk garbi daukagu herri honetan hizkuntzak lehentasuna izan behar duela eta arazorik ez badugu guk euskaraz hitz egiten jarraituko dugu.

◀ **GORKA ZABALETA**



Martxel Toledo,
ESAT taldekoa.

Publizitate erreportajea

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturean, euskararen, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jauna-ekin gaude (Cafés Baqué enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatiatatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuak ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasunezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendari Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldur bedi eredu.

LARRAITZ ODRIÓZOLA

Indamendiren tontorretik ikusten direnak

Elkarteak bete berri
dituen 25 urteen
errepasoa lau
beteranorekin

*Inda-Mendira igo gara
grabadora hartuta. Oraindik
festetako ajea pasa gabe
gaudenez gogorregia egin
zaigu aldapa. Erdibidean
bokata jatera gelditu beharra
izan dugu indarrak hartzeko.*

*Hain mendizaleak izanda
gain batean jarri behar zuten
hauek soziedadea ere. Baina
merezi izan du esfortzuak.*

*Mahaian eseri, trago bat
atera, eta gustora entzun
ditugu Joakin, Arritxu, Jexux*

*eta Rosak elkartearen
historiaz kontatu dizkigu-
tenak. Urbia eta Aralargo
pagadietatik hasi eta Pirineo*

*eta Alpeetako mendi zurieta-
raino errepaso polita eman
diete Inda-Mendiren 25 urteei.*

"Inda-Mendi sortu aurretik OARGI-ren 'Beti Gazte' mendi sailak antolatu ohi zituen mendi irteerak Zumaiari" hasi da Jexux memoria egiten. Elizaren inguruko erakunde bat zen Organización Atlético-Recreativa Gipuzkoana hau. Mendi sailaz gain bazituen futbol eta atletismo taldeak ere, eta kirol eta kultur aktibitate desberdinak antolatzen zituen. Herrian bazen gazte kuadrila zabal bat mendirako zaletasun handia zuena, OARGI-k hainbeste egitekoren artean ezin zion mendiari beraiek nahi adina arreta jarri, eta elkarte propioa sortzea erabaki zuten. "Anaden egin zan afari batean erabaki gendun elkarte sortzia, eta hurrena Santa eskian erten ginan elkarterako dirua biltzeko" gogoratu du Jexuxek. "Lenengo sokak erosteko ere almejeta erten eta harra-patutakuakin zozketa egin ginun estalapan" Joakinek.

Kaja batzuetan dituzte gordeta elkar-tearen kontu liburu eta dokumentu guztiak, eta pixka batean bila aritu ondoren liburu gorri bat ekarri du Jexuxek mahaira. "Hementxe zio, elkartearen lenengo akta, fechado el dia 19 de febrero de 1973". Santa eskian irten ziren hartan jaso zuten diru kopurua ere apuntatuta dago, 10.125'50 pzt. "Urte haietan Santa Agedako koruen ohitura etenda zeonez jendiak oso gustora hartu ginuzen, goiz ta arratsalde erten ginan gainera, eta diru mordoska bildu zan" komentatzen du Rosak. Lehenengo irteera Garatera egin zuten. Gastuak: 20 pzt.

Orditik hona mendi mordoa egin dute. Inguruko denak, Urbasa, Aralar, Picos de Europa eta Pirineo gehiena. Elkarteko kide batzuek baita gailur



garrantzitsuak ere. Joakinek berak Alpeak goitik behera korritu ditu; Josu Agirre, Javier Odriozola, Luis Mari Aristegi eta Dario Fernandezekin batera Kilimanjaroren gailurra (5.900 m) egin zuen; eta Rafael del Pilar, Javier Odriozola, Kepa Urruzuno eta Fernando Zearretarekin ez zen Akonkaguaren gailurretik (6.900 m) urruti ibili.

*"inor atzean ez
uzteko, elkarte-
rentzat nahiago
izaten ditugu
trabesiak gailur
sonatuak baino"*

"Baina gisa hontakoak norbere kasa egindako saioak dira, ez elkarteak antolatutakoak" argitu digu Arritxuk, "tipo guztietako mendizaleak biltzen dira Inda-Mendin, badaude haurrekin

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

dihoazenak ere, eta inor atzean ez uzteko, elkartearantzat nahiago izaten ditugu trabesiak gailur sonatuak baino". Martxa lasaia ibiltzen dira beraz, baina ez horregatik gutxiago. Ideia bat egin ahal izan dezazuen hona hemen Larrainetik Ordesarainoko trabesiaren ibilbidea: Refugio de Navarros-Belagua, Belagua-Ozako oihana, Oza-Kandantxu, Kandantxu-Sallent de Gallego, Sallent de Gallego-Pantikosa, Pantikosa-Torla eta Torla-Perdido.

"Hogeita bost urte hauetan asko aldatu dia mendiko ohiturak"

Nekatu ederrak hartzen dituzte bada, baina ezin mendiaz aspertu. "Paraje zoragarriak ikusten diteu, herria ezautu, eta giro earra izaten deu, lagunartia" dio Jexuxek, "gainea hainbeste urtian ibilita, beste mendizale jende asko ere ezagutu deu, eta polita izaten dek tarteka topo egitia". "Giro berezia sortzen da mendian" gaineratzen dio Rosak.

Bestalde azken urteetan askoz erosoagoa bihurtu omen da mendia. "Joan-etorria bera asko erreztu dek, bideak eta autobusak askoz hobeak baitira" hasi da Jexux. Orain Aizko-rrira buelta goiz batean egiten badute lehen bi egun behar izaten zituzten.



"Eramaten gendun pisuan ere alde dago" segitzen du Joakinek, "motxilak bakarrik bazitun sei-zortzi kilo, butanoa, jositako mantak, erropa pila...". "Eta lenoko kanpinak Joakin, gogoratzen geure 'tankea'? sartu da Arritxu. Ibiltzen zituzten erropez gogoratu da Rosa "anorakaren aurretik kaikuak ibiltzen genitun, eta oineta-kuetan hasieran abarkakin ere ibiltzen ginan, gero 'Txiruka'-k etorri zian...". "Eta neskak galtzakin, naranjas!, gonakin" Arritxuk parrez. Jatekoak ere lehen alondigak, txibiak eta kafea, eta orain fruta eta energetikoak.

"Hogeita bost urte hauetan asko aldatu dia mendiko ohiturak" esplikatu du Joakinek. Zakurik ere ez zegoen, jositako mantetan sartuta egiten zuten lo. Orain ez omen dute zakuaren beharrik, aterpetxe edo albergeren bat beti egoten baita eskura.

25 urte eta gero

Mendiko saila eta soziedade gastronomikoaren artean ehun bazkide pasatxo ditu Inda-Mendi elkartek.

		INDA - MENDI M. B.	
		Nº. Sección 10	
Don Yón Paredes Manotas			
Domicilio	0/ Aiken Portu nº 26 B		
Población	Zarauz (Guipúzcoa)		
Fecha ingreso	1 de Enero de 1.973		
Fecha nacimiento	20-11-54		
Nº. Carnet identidad	15.904.721		

Jon Paredes, "Txiki", sortzaileen artean egon zen.

Hauetatik ehundik gora dira mendian ibiltzeko Euskal Federazioaren lizentzia dutenak. Eta dozena bat 'centenario' ere bada bazkideen artean. 'Centenario'-en kontu hau Federazioak ematen duen titulu moduko bat da, honen katalogo batean seinalatzen diren ehun gailur bost urtean, eta urteko hogeitaz gailurren topearekin, egiten dituzten federatuei ematen zaiena.

Kategoria pixka bat ere hartu du bada elkartek hogeita bost urte hauetan.

Hilean pare bat irteera antolatzen dituzte, goiz bueltak edo egun guztirakoak. Urte hasierarako egina izaten dute egutegia. Honela, maiatz honetan, hilaren 3an Inda-Mendi eguna, 17an Belagua-Otsogorrigane-Larraine eta 31n Larraine-Ori-Irati izango dira. Asteartetan jartzen dituzte kartelak, eta Fotos Mertxen eman behar izaten da izena. Helduek 500 eta haurrek 400 pezeta ordaindu behar izaten dute.

Ohitura dute baita urtero San Pedrotan hiru-lau egunetako irteera handiago bat egiteko. Aurten Belaguara doaz. Garai batean akanpada egiten zuten, baina urte batzuetatik hona debekatu egin dute akanpada librea mendi gehienetan. "Bi edo hiru denda izan ezkeru aun, baina gu berrogeitamartetik gora juntatzen gea eta nabarmenegia gea debekatutako tokian akanpatzeko" dio Arritxuk. Akanpadetako saltsa nahiago bazuten ere (gauean sutondoan egindako juergak e.a.) aterpetxetan ibili behar beraz.



Gaur ere horrelako zintzo aurpegia balute...

"Gero beste bi egun seinalatu izaten diteu" jarraitu du Rosak, "Zumaia-ko bira eta Inda-Mendi eguna". Maiatzeko lehenengo igandean izaten da Inda-Mendi eguna. Mendira igo eta trofeo banaketa egiten dute hamaiketa-koaren ondoren. Urtean zehar hamabi gailur egin dituzten elkarteko haurrei, kopa eta domina bana ematen zaie beren zaletasuna saritzeko. Beherakoan, bazkaria egiten dute soziedadean.

Dezente jende mugitzen omen da irteera guztietara. "Gehienian hogeita-marren bat edo izango gaituk" dio Jexuxek. Baina gazterik bat ere ez.

"Bastante herri mendizalia da Zumaia, eta gazte batzuk ere ibiltzen dia, baina beren kasa. Gaztiak gailurrak egin nahi ditu, eta gu suabe ibiltzen gea" dio Joakinek. "Gainea guk igandetan egiten diteu irteerak eta gaztiak larunbat gabian berandu arte ibiltzen dianeaz ezin goizo jeiki mendira etortzeko" dio Arritxuk. Hala

ere eskertuko omen lukete norbait animatuko balitz. Urte asko daramatzate antolakuntza lan horietan eta gazte batzuek erreleboa hartzea nahi dute.

98ko Inda-Mendi eguna

Maiatzaren 3an tokatu da aurten Inda-Mendi eguna, eta elkaratearen hogeita bost urteak ospatzeko egun berezi xamarra antolatu dute. Bazkalostean plaka bana eman diete lehendakari izandako guztiei: Joseba Zubiaurre, Alberto Esnal, Felix Idigoras, Imanol Azkue eta Mikel Berastegiri; baita Rosa Iturralde, Jesus Aizpurua eta Arritxu Iruretari ere, urteetan egindako lan mordoagatik. Aipamen berezia egin diote Fotos Mertxeri antolakuntza lanetan ezinbestekoa zitzaien laguntza eman izanagatik. Eta maisuari, Joakini, omenaldia bertso eta guzti.

Zorionak bada eta urte askotarako.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

BALEIKE

1998ko maiatza, 46. zenb.

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

IHINTZA
taberna

Tel: 800472
Ortega y Gasset, 3



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA

FRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

BEGIRAK

ATA L A I A N





san telmoak



Herri kirolak, edo
herri bazkaria?
Barrikari begiratu
bai, baina nork
altzako?

San Telmotik izkutuko txupinazoa.
Jendea harrituta zegoen nondik ote
zetozten txupinak, baina horra hor
erantzulea



Hauek behintzat bapo bazkaldu zuten.
Gourmet onak ere bazkari herrikoietan
ibiltzen omen dira...



Tira, tira puskatu
arte!



Musikari mota guztiak
izan ditugu, behatzak
izorratutako txistulariak,
eta baita betikoren bat
bonboarekin ere...

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 - 143409

san telmoak



Giroak lagundu ez zuen arren gogoz jo zuten
gaztetxoak tanborrada.

Riss, Rass... hori dek estiloa hori!



Ez da abilitade makala!
Animo txikito!



Eta azkenean...
agur! Datorren
urtean berriro.
Aupa San Telmo!



Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446



ilarfi
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324



Asier Urbieto

Biak, baina belarrak etzaizkit gustatzen. Burlata junda nao eta homeopatakin nabil, eta beti asmatu iten due.



Rober Zearreta

Biak, naturalaz jeneralian jendia gutxio fiatzen da baina dana asmatzen due halare



Mariaxun Alberdi

Naturala. Nere hurbileko kasuan ikusi det nola gaixo zegon pertsona batek meioria haundiagoa lortu zula belar inguruko medizinarene bitartez. Gainera, kuriosua iruditzen zait mediku batzuk kasu batzutan aholkatu dutela medizina naturala bultzatzia.

zer da fidagarriagoa zuretzat medikuntza edo orokorra naturala?



Joseba Urbieto

Naturala. Festetan nahiko zikintzen deu barrua eta gero garbitu beharra dao.



Ladis Paredes

Neretatzat publikoa dudarik gabe. Gauzak estudiantzen direnian askoz ere seguruagoak iruditzen zaizkit. Medizina naturalak ez dauka oinarri zientifikorik.



Xabi Egaña

Naturala: Gure euskal kultura ere natural-naturala da. Gu bezalako naturalak behar dira.



Antxon Lizaso

Ez dakat astirik ez batea ta ez bestea juteko. Astia izan ezkeo seguraski pentsatzen det.. Hastekotan jungo nitzakela seguridade sozialera, ze pagatu iten deu. Naturistarena ez naiz behin ere jun.



Maribi Garate

Ikasi nuen reflexoterapia baina medikuana ere jun beharra daola uste det.

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758



Urumea, 6 Tel. 862083

Joseba Ossa
ITZULPENAK
euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa
Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es

Hiru Ezkur eta Txikixa Pub ditugu aurtengo plaieroetako irabazleak

Finaletan emozioa izan zen nagusi

Amaitu da aurtengo Zumaiko plaieroetako txapelketa. Hiru Ezkur taldea Ligan eta Txikixa Pub Kopan suertatu dira garaile; irabazle justuak eta hein handi batean favoritoak denon ahotan. Hamalau taldek hartu dute parte txapelketa honetan, nahiz eta arazo batzuegatik edo besteengatik bi talde kaleratuak izan diren.

Azken ordurarte emozioa izan zen San Telmoetako jaietan jokaturako finaletan. Ligan nahiz Kopan, azken orduan erabaki ziren norgehiagokak eta honek asko lagundu zuen ikuskizuna oraindik handiagoa izan zedin.

Axier Kirolak eta Hiru Ezkurrek jokaturako Ligako finalean, azkenengoak nagusitu ziren 2-1eko emaitzarekin. Irabazlek bi goletako errenta lortu zuten atsedenaldirako, baina azkenean estuasun handiak pasatu zituzten.

Penalti jaurtiketak

Kopan berriz, Txikixa Pub eta Mendi Ondo Elektrizitatea taldeen arteko neurketa banako berdinketaz amaitu zen. Partidu gogorra jokatu zuten bi taldeek eta garailea erabakitzeko, penalti jaurtiketetara joan beharra izan zen. Hemen, Txikixa taldekoak abilago aritu ziren, eta batik bat Gaizka atezainak lan bikaina burutu zuen penalti pare bat geldituz. Garaipena beraz, Txikixa Pub-ek lortu zuen.

Aurtengo txapelketa honetan, aurreko urtean baino kalitate handiagoa egon da, baina bestalde, antolaketa aldetik, hobetu beharreko hainbat gauza daude oraindik. Ekin Buitraker taldea eta Basusta Erreategia txapelketatik kanporatu ziren. Lehena kiroltasun faltagatik eta bigarrena berriz, partidu batera behar diren adina jokalaria ez azaltzeagatik.

Finaletako emaitzak alde batera utzita, bigarren faseko Liga eta Kopako sailkapenak honela geratu ziren:

LIGA

1- Hiru Ezkur	12 puntu
2- Axier Kirolak	9 puntu
3- Basterrikalde	7 puntu
4- Kabi Genelek	6 puntu
5- Txakur Amorratuak	4 puntu
6- Gesem	4 puntu

KOPA

1- Txikixa Pub	18 puntu
2- Ekin Buitraker	18 puntu
3- Mendi Ondo Elektrizitatea	12 puntu
4- Ipurbeltz Gaztañaga Garraioak	11 puntu
5- Inpernupe	11 puntu
6- Pub Eguzki	4 puntu
7- Basusta Erreategia	4 puntu
8- Siete Mares	3 puntu



Hiru Ezkur ligako talde txapelduna



**Loredenda
JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1

Tel. 860375

*Jesuskoa
Faletxea*



Tel. 861739

OIKIA
ZUMAIA



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

Itxas-Gain taldea Espainiako azpitxapeldun

Pistako Estatu Kopan berriz, seigarren geratu da

Ikaragarria da Itxas-Gain Zumaiako piraguismo taldeak egiten duen lana. Urtero punta-puntan dabil, nahiz eta denboraldi bakoitzean hainbat piraguistak ikasketak direla eta ezin duten entrenatu behar bezala. Baina emaitzak ikusita, ez du ematen hau oztopo handiegia denik zumaiarrentzat. Apirilaren hasieran Espainiako azpitxapeldun izan ziren Sevillako uretan jokaturako proban. Sekula erdietsi duten emaitza onena da hau.

Galiziako Kayak-Tudense Autopistas del Atlantico taldea soilik izan zuen aurretik Itxas-Gainek Espainiako txapelketa honetan. Konpetizioa 5.000 metroko distantzia korritu zen eta guztira, espainiar estatutik 85 taldek hartu zuten parte.

Zumaiarrak 14 palistekin abiatu ziren Sevillara. Denek maila ezin hobea erakutsi zuten baina sailkapenari gainbegirada bat emanez, Iñaki Vitak Kadete K-1ean lortutako zortzigarren postua azpimarratu behar da edota maila berean Aitor Aizpuruak C-1ean egindako bederatzi-garren postua.

Txapelketa honetan lortutako arrakasta honek oraindik balio gehiago du kontuan hartuta zumaiarrek ez dutela patrozinatzailearik eta esfortzu handia egin behar dutela gastuei aurre egiteko. Gainera,

Sevillan, Galiziako eta Zamorako hainbat taldetan atzeritar asko zeuden eta Itxas-Gain taldean berriz gehienak zumaiarrak ditugu eta gainontzekoak euskaldunak.

Bestalde, Trasonan jokaturako Pistako Espainiako Kopan, seigarren postua eskuratu du Itxas Gainek. Aipagarria jubentzetan K-2an Iñigo Agirrek eta David Gonzalezek lortutako hirugarren postua, eta emakumezkoetan senior mailan, modalitate berean Naiara Gomezek eta Itziar Lopezek ere postu bera eskuratu zuten.

◀ IGOR URANGA

Hona hemen Itxas-Gain taldea, Sevillan, lortutako garaikurrekin.

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneako menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10


Tel. 861853

taberna JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Tel. 143379



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

KUKUTZ
serigrafia

- kamisetak
- txiskeroak
- paperezko poltsak

Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

Pala txapelketako bigarren fasea hasi da

Lehenengo ligaxkari agur esan ondoren, San Pedro Pala txapelketako bikoteak bigarren fasean sartuak daude dagoeneko. Hau gizonaezkoen txapelketari dagokionean. Emakumezkoetan, hasierako liga horretan jarraitzen dute eta hau amaitutakoan zuzenean final laurdenak jokatuko dituzte.

Orain arte ikusitakoaren arabera, ez da inolako ustekabekorik egon eta faborito guztiek aurrera jo dute. Dena den, orain arte bikoterik bat nabarmendu beharko bagenu, Joseba Arratibel eta Xabier Iruretak osatutakoa izango litzateke. Arratibelek batez ere, izugarrizko joku maila ona erakutsi du txapelketa honetan, eta horrela jarraituz gero, oso zaila izango

du beste bikoterik batek hau atzean uztea.

Bigarren fase honetan, San Pedro ligaxkarako (bikote onenak) bi multzotan banatu dira: Lau multzo hauetatik lehen lau postuetan geratzen direnak final laurdenetako txartela lortuko dute. Emakumezko txapelketan ere sistema bera erabiliko da. ◀

San Pedrineko fasea

A multzoa

- 1- Gorostola-Aizpurua
- 2- Alkorta-Urbieta
- 3- I. Arratibel-Etxabe
- 4- Ostolaza anaiak
- 5- Bilbao-Azkue
- 6- Mofli-Kandido

B multzoa

- 1- J. Arratibel-Irureta
- 2- Agirre-Zuazobide
- 3- Elustondo-X. Uranga
- 4- Segurola-X. Arratibel
- 5- Urrutia-Albizu
- 6- Serna-Albizu

A multzoa

- 1- Egaña-Martin
- 2- Unanue-Unanue
- 3- Prieto-Galarraga
- 4- Grela-Buenechea
- 5- Ulacia-A. Leiza

B multzoa

- 1- Marcos-Leiza
- 2- Uranga anaiak
- 3- Lazkano-Aizpurua
- 4- Zendoia-Azkune
- 5- Lopez anaiak
- 6- Amilibia-Esteibar



Alberdi eta Enbil garaile

San Telmoetako errepikapenetan profesionaletako pilota jaialdi bikaina ikusteko aukera izan zen Odieta pilotalekuan. Palaz Sanchez-Rekalde bikotea Insausti-Arzelusen aurka aritu zen eta garaipena erraztasun osoz lehenengo bikotearen alde erori zen.

Baina zumaiairrontzat partidu interesgarriena zetakoa zen, izan ere, Luis Mari Alberdik eta Gotzon Enbilek

osatutako bikote zumaiairrak Berraondo eta Barrondoren aurka jokatu zuen. Zumaiairrek Odieta frontoira askoz hobeto moldatzen direla erakutsi zuten eta ez zuten arazorik izan garaipena eskuratzeko. Gotzon Enbilek eta Luis Mari Alberdik oso maila ona erakutsi zuten eta azken honek, batez ere, aurreko koadro horietan fin ibili zen tantu ikusgarriak lortuz. ◀ **IGOR URANGA**



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



AIZPURUA

LIBRUTEGIA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



Komuneko zulotik behera

Inoiz pentsatu al duzue gure herri edo hirietako komun, harraska eta bestelako zuloe-tatik behera doan "urak" nolako ondorioak eragiten dituen? Inoiz jarri al zarete ibaian edo itsasoan bizi diren arrain edo bestelako bizidunen azalean? A ze gozamena hainbeste kakamokordo artean bizitzea! A ze kolokoiak xaboi eta lixibekin! Eta industrietako isurketak... droga gogorra!

Gure ibaiak ur zikinak biltzen dituzten kanalak bihurtu ditugu. Bertan bizi diren espezieak badute nahikoa meritu. Ibaia eta ibai bazterra ekosistema oso aberatsak dira berez, baina gaur egun oso espezie gutxi geratzen dira, euren habitata zeharo suntsitu dugulako. Gure etxeetatik iristen den materia organikoak eutrofizazioa eragin du toki askotan. Hau da, materia horri esker landareak behar baino gehiago ugaltzen dira, uretan dagoen oxigenoa kontsumituz. Beste espezieak ito egiten dira -ito, oxigenoa ez dutelako-, eta hauen gorpuak oxigenorik gabeko egoeratan agertzen diren bakteriek jaten dituzte, izugarriko usain txarra eraginez. Ibai, laku edo urtegi hori hil egiten da.

Hori materia organikoarekin. Ez dago esan beharrik xaboi, lixiba eta industriar isurketak ez direla batere osasungarriak ibaiarentzako. Eta gu, urteak eta urteak gure herri edo hirietako komun, harraska eta bestelako zuloetatik behera ur zikinak botatzen.

Ba, neurriak jartzen hasteko ordua da. Argi dago gure komuneko bonbari eragiten jarraituko dugula, baina ura ibaira garbi iristeko bitartekariak jarri beharko ditugu. Gaur egun Gipuzkoan ur hauen tratamendua egiten duen araztegi bakarra dago, gure ibaian

hain zuzen ere. Lasaoko araztegiaren Azkoiti eta Azpeitiko urak garbitzen dira Urola ibaira bota baino lehen. Ondorioak begi bistakoak izan dira. Ikusi besterik ez dago ibai nola jaisten den Zumarraga-Urretxu aldetik, eta nola Azpeiti aldetik.

Baina araztegi bakarra ez da harro egoteko moduko lorpena. Are gehiago, oso atzeratuta gabiltza beste herrialdeekin alderatuta; oso atzeratuta Europar Batasunak lege eskatzen duenarekin alderatuta. Europatik etorritako 91/271 Direktibak dioenez, 2005. urte amaierarako 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek euren isurketak garbitzeko araztegia izan beharko dute -ze punturaino garbitu behar diren beste kontu bat da-. Hau da, hemendik zazpi urtera ia Gipuzkoako herri guztiek euren urak garbitu beharko dituzte ibaira edo itsasora isuri baino lehen. Hasi patrikak hustutzen. Honek eskatzen duen inbertsioa ikaragarria da. Hemendik aurrera ura neurritz erabiltzen ikasi beharko dugu, litroaren prezioak izugarri egingo baitu gora. Betiko kontua da. Bizimodu honekin jarraitu nahi badugu, bi aldiz ordaintzen jarraitu beharko dugu: aurrena zikintzeko; gero zikindutakoa garbitzen.

◀ ARAZI TALDEA.



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Amaiako plaza

Tel. 861440



Loitz

* Eskola eta
bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Tel. 143278

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatura

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

maiatza



HITZALDIA

Inpernupe Kultur Elkartek antolatuturik, Pello Zabalak "EGURALDIAREN ZIRRIZTUAK" hitzaldia emango du.

► Maiatzaren 14an, arratsaldeko 7:30etan
Oxford aretoan

ZINE FORUM

"Un hero e muy discreto"

► Maiatzaren 14an, 10:15etan,

XV. SAN TELMO SARIA

Sari banaketa

► Maiatzak 15, 5:30etan
Foronda Kultur Etxean

"ZUMAIA 650" HITZALDI ZIKLOA

Mikel Barkham-ek "CONSTRUCCION NAVAL DURANTE EL SIGLO XVI" hitzaldia emango du.

► Maiatzaren 15ean, arratsaldeko 7etan
Foronda Kultur Etxean

ANTZERKIA

Antxieta taldeak "HAMAR MINUTU GAUERDIRAKO" antzezlan eskainiko du.

Egilea: Nagore Aranburu

Zuzendaria: Inazio Tolosa

Azpeitian egiten diren **Euskal Antzerki Topaketetako XV.** edizioan, amateur mailan **Ikuslegoaren Saria** irabazi zuen antzezlan honek.

► Maiatzaren 23an
Aita Mari aretoan

HAURRENTZAKO ZINEA EUSKARAZ

Wallace eta Gromit (bigarren partea)

► Maiatzaren 24an

Sagu txiki, sagu maite

► Maiatzaren 27an

Supersonikoak

► Maiatzaren 31n

ZINE FORUM

"Balas sobre Broadway"

► Maiatzaren 28an, gaueko 10:15etan

ESTAZIOKO FESTAK

► Maiatzaren 28, 30 eta 31an

JABIER MUGURUZAREN KANTALDIA

Antolatzaile: INPERNUPE KULTUR ELKARTEA

► Ekainaren 5ean, gaueko 10ak aldean
Oxford aretoan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta
16.30 - 19.30

ILE APAINDEGIA

herena
uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

JOXE
MANUEL

JOXE
MANUEL

Kapoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

ZINE FORUM

neguko zikloa



Maiatzak 14

Un heroe muy discreto

Zuz: Jacques Audiard

Akt: Mathieu Kassovitz,
Anouk Grinberg

Frantziar zinematik hona heltzen diren filmeak bi multzotan bana genitzake. Alde batetik arrakasta haundiko komedia inuzenteak eta bestetik Frantziar beti egin izan den zine bikain hori (**Tavernier**-en *Capitan Conan* adibidez). Hilbete honetan ikusgai den filma bigarren multzoan sartzen denik ez dago inongo dudarik.

Audiard gaztearen bigarren filme honek 2. Mundu Gerrako Errezistentzia frantziarraren mixeriak kontatzen ditu, gazte baten bizitza erakusle bezala hartuz. Gazte honek, gizarte guztiaren aurrean bere burua heroitzat joko du. Bere biografia faltsua perfektionatzaren duen heinean, sekulako arrakasta lortuko du eta naziekiko kolaborazioa ezkutatu nahi duen gizarte frantziarrean gorantz joango da.

Frantziar harrokeria salatzen duen komedia hau, hainbat zinemalditan saritua izan da.

Maiatzak 28

Balas sobre Broadway

Zuz: Woody Allen

Akt: John Cusack, Dianne Wiest, Chazz Palminteri

Filme honetan 30eko hamarkadako New Yorkeko antzerki-gintzaren ikuspegi barregarria erakusten digu **Woody Allen**-ek: antzerkigile neurotikoak, dibismoak jota maldan beheara doazen aktoreak, gangsterrak eta beraien maitaleak, "mato" intelektualak... Dena ere jazz musikaz lagunduta eta Allen jaunaren umore korrosiboaz beteta.

Woody Allen historia guztiko zinegile bikainenetakoa denik ez dago inongo dudarik. Inoiz filme txarrik egin ez badu ere, badirudi azken urte hauetan ratxa izugarri batean dagoela, **Mia Farrow**-gandik banandu zenetik maixu-lan bat bestearen atzetik egin baitu. Hori dela eta, zine-forum denboraldiari amaiera emateko, zein aproposagoa Manhattango judu neurotiko hau baino.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Kontaktua.

Poema antologia

Harreman arriskutsuak

Justine edo Bertuteaaren zorigaitzak

Ekialdeko kontakizunak



Luis Fernandez
Charles Bukowski
Chordelos de Laclos

Marques de Sade
Marguerite Yourcenar

Gazteleraz

Los pasos incontables

Ramsés: el hijo de la luz

En el mar de China

Miramientos

Solo un día más



Ramon Saizarbitoria
Christian Jacq
Juan Madrid
Javier Marias
Jordi Sierra i Fabra

Haurrak/Gaztetxoak

Arrats aldeko kronikak

El balón hablante

Mari-Marietta

Baleen barbaroa

Ahatetxea eta sahats negartia



Juan Farias
Thomas Brezina
Maite Gonzalez Esnal
Edorta Jimenez
Mariasun Landa

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

gidatzeko baimen guztiak



San Telmoak eta gazteak

Jakingo duzuen bezala aurtengo San Telmoetan ere Zumaiako Gazte Batzordeak festetako egitaraua osatzen eta burutzen lagundu du. Hasera batean zalantzak izan bagenituen ere, *Gazte Egitaraua* aurrera eraman beharrean Udaletxearekin bat egin eta aurreko urteen antzerako egitarau bat gauzatzea erabaki genuen, besteak beste, kontzertu bat, poteoa bizikletaz eta bokadillada kolektiboa gehitu ditugu.

Dirulaguntza aldetik Udaletxearen jarrera baikorra aipatu beharra dugu, nahiz eta zurrakapotea eta kontzertu baterako dirulaguntzarik ez eman. Aldiz, programa kaleratzeko garaian ZGBren ardurako ekintzak zein ziren adierazi baziren ere, errepikapenetako kontzertua eta poteoa bizikletaz ez zituzten argitaratu. Horren aurrean gure kexa agertu nahi dugu, gauza bat Udaletxeak ez subentzionatzea eta beste bat ez egitea baita; bi ekintza hauek burutu egin ziren, beraz, programan argitaratu beharko ziratekeen.

Baina zoritarrez Udaletxearen hasierako jarrera baikorrak bapateko aldaketa jasan zuen. Aurretik adierazi dugun bezala, Udaletxeak kontzertu dirulaguntza emango zuela jakinarazi zigun. Hala eta guztiz ere, bigarren kontzertuarekin aurrera jarraitzea erabaki genuen eta halaxe adierazi genien Udaletxeko arduradunei. Gauzak honela, Aizarnazabalgo tablatua ostiralean (Apirilak 17) ekarri eta larunbatean (Apirilak 25) itzultzea erabaki genuen. Larunbatean ZGBko zenbait kide tablatuaren bila eta montatzera joan ginen, udal langileen ardura ez baita hori.



Lehenengo asteburua inungo arazorik gabe pasa bazen ere, hara non Maria Eugenia zinegotziaren telefono deia jasotzen dugun, tablatua apirilaren 22an itzuli beharra zegoela esanaz, Aizarnazabalgo alkateak berak maiatzaren 7rarteko baimena luzatu zigun arren. Guk behin eta berriz esan genion ostiralean beste kontzertu bat genuela eta tablatua ez eramateko, horretarako arrazoirik ez zegoela eta. Jaramonik egin ez eta udal langileak bidali zituen tablatua desmontatzera asteazkenean goizean goiz Aizarnazabala eramateko asmoz.

Egoera horren aurrean ZGBko zenbait kide bildu eta, beste aukerarik ezean, tablatua ezkutatzera erabaki genuen. Hurrengo egunean jakinarazi genien Udaletxekoei tablatua geuk geneukala badaezpada ere. Gure jarrera ez zitzaiela batere egokia iruditu esan ziguten, guri beraien jarrerak eta gaueko ordu haietan tablatua ezkutazen ibiltzeak grazia egingo baligu bezala. Egoera haren aurrean ez zutela kontzertua geldiaraziko esan ziguten (badirudi kontzertua egin behar genuenik ez geniola jakinarazi) eta oztoporik ez zigitela jarriko. Bada gezurra esan zuten, Forondara kontzerturako kartelak fotokopiatzera joan ginenean kontzertukoak zirenez ordaindu beharko genituela esan baitzигuten. Zorionez, eta esfortzu gehigarri bat eginez, lortu genuen bigarren kontzertua gauzatzea. Hala ere, oraindik Udaletxekoen esplikazioaren zain gaude.

Eragozpen txiki honetaz aparte, ZGB ahalik eta egitaraurik oparoena gauzatzen saiatu da eta berauek ganoraz aurrera eramaten. Gazteok parte hartzeko aukera garbiak izan ditugulakoan gaude eta gazteen erantzuna espero bezain ona izan dela argi ikusi da. Askori gertatzen zaienaren antzera, geuk ere hankasartzeak izan ditugu, mus eta futbolen txapelketen antolaketa besteak beste; hori dela eta barkamena eskatzen dizuegu. Bestalde partehartzaile guztiei eskerral eman nahi genizkieke jarri duten giroagatik, baina batez ere eskertu nahi genituzke ekintza guztiak posible egin dituzten gazte horiek.

ZGBko txosnan lan egin duten guztiei ere gure eskerrik beroena, batez ere Larburu eta bere kuadrilari errepikapeneko larunbat gau hartan egin zuten esfortzu gehiagarriagatik antolakuntza arazo bat zela medio. Inpernupe elkartea berari ere eskerrak eman behar dizkiogu bere janleku eta sukaldea festetako prestakizunak gauzatzeke beharrezko izan baitzaizkigu.

Eta ez ahaztu San Telmoak bukatu diren arren ZGBak oporrak hartzen dituenik, ezta gutxiagorik ere. Zuen guztion partehartzearen zain geratzen gara ekintza berri bezain desberdinak burutzen jarraitzeko asmoz.

◀ ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA



Bilbo ere deskubritu dugu

Jada jakingo duzuen moduan, apirilaren amaieran izan ziren *Atxantatu* taldekoak Bilbon, bertako musika lehiaketan parte hartzen. Lehenik makina bat talderen artean hautaketa bat egin ondoren, aukeratutako taldeen artean, eta zuzenean emandako kontzertu baten arabera aukeratuko da aurtengo edizioko garailea nor izango den.

Apirilaren 29an *Bilbo-Rock* aretoa Zumaian zegoela zirudien, bertan bildu zen zumaia lagun taldea medio. Talde kataluniar batek jo ostean iritsi zitzairen herritarrei jotzeko txanda, eta giro beroa sortu zen kontzertuak iraun zuen ordu erdian. Baina guk baino

hobeto Atxantatukoek kontatuko dizuete han bizi izandakoa.

"Egia esan, sumatzen ez genituen nerbioak azaldu zitzaizkigun taulara-tzean. Bata argazkiak ateratzen, bestea apunteak hartzen, beti ere urduri jartzen zaitu. Ez genuen saioaz gozatu, eta hori nabaritu egiten da. Bestalde, entzun gintuen jendea sentsazio onakin etorri zen, eta hori bada zerbait!

Guk egin beharrekoa, hobeto edo okerrago, egin genuen, baina han zegoen kalitatea ikusirik oso zaila da zerbait lortzea. Honaino iristea asko zen guretzat, kontzertu honek bultzatxo bat eman digu, eta hortik aurrera guri dagokigu orain, kontzertuak lortu eta mugitzea.

Azkenik, tartetxo hau aprobeztatuz, Bilboraino hurbildu zineten guztioi zein herrian zuen babesa eskaini diguzuenoi eskerrak eman nahi genizkizueke, guretzat zuen laguntzak izugarri suposatzen baitu." ◀



Atxantatu taldearen ekitaldia, Bilbon.

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

TXOKO T
A B E R N A


Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa



Non dago Basadi?

Gure amak esango lukeen bezala, argazki hau ez da ni baino zaharragoa. Hala ere, faltan botatzen dira bertan Basadi auzoa, (oraindik ere eraikitzeko) eta baita Maria eta Jose ikastetxea ere. Errepidean garai batean ezarrita zegoen monolitoa ikusgai ageri da, baina batez ere nabari geratzen dena, garai hortan draga haundien beharrik ez zegoela izan daiteke. Begira bestela bazterrean agertzen den itsasuntzia. Motorak ere lehorrean gelditzen dira eta hor gaur egun!



ZALLA ERRETEGIAK eman dako afaria **GENTZANE GARCIA LAZKANO** rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, 94ko San Telmotako bazkari herrikoia frontoian izan zen.

Tripa-festa lehiaketa

Adi, adi! Bi pertsonentzako afari eder bat irabaz dezakezu!

Gure txokoa

* taberna *

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

Zein da argazkiko ume potzolo hori?



Asmatzen duzuenon artean GURE TXOKOAK

emandako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, maiatzaren 26a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

**BELARDENDA
SIWA**



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

**TALAI-MENDI
DEKORAZIOA**

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35

Tel. 929-550574

BALEIKE

1998ko maiatza. 46. zenb.

motxian hi!



zein: Jose Mari Arruti Landa

zer: Jolastokiaren jabe

nola: Joxemai

Zertan ibiltzen zinen bolera jarri aurretik?

Arrantzan, bizkarretik operatu eta honetan jarri nintzan.

Zer pentsatzen dezu gazte jendeaz?

Jatorra dala; baina bandido batzuk etortzen zaizkit...

Zein da gehien gustatzen zaizun jokoa?

Futbolina (makinetan ez dakit jolasten)

Musa edo partxisa?

Partxisa

Zer oparituko zenioke emakume bati? Eta haur bati?

Errropa emakumeari eta haurrari jostailua

Bidai bat egitekotan, nora joango zinateke?

Cubara edo...

Ludopatarik izan al dezu boleran?

Ez, ez det uste. Beraiek deitzen didate ludopata, beti hemen naolako

Gazteek zenbat gastatzen dute arratsalde batetan?

Ez dakit. Batzuk gehiago, besteek gutxiago. 40 duroren aldean

Amets bat.

Pakia

Nola egiten dituzu izozkiak?

Goguakin eta maitasunez

Erosketak non egiten dituzu?

Bixentenan, etxe azpian

Liburu bat.

Liburua ez dakit baina egunaria irakurtzen det

Aberasteko erarik onena?

Lana eginez

Aholku bat.

Gaztiak borrokan ez ikustia. Horrek lehertu egiten nau

agurrak

Egualdi earra! Aupa Baleike!

Peeee!!! Bastardoooo!
Txarreko jartze haiz!

M.M. Ea noiz deklaritzen
zaien. TILIN TALAN!!!

Al sur de Tudela nunca
llueve. EEEH!

Pendi: Giñas whit Matrija
and company

Zumaia eta Oriol! Bodan
zain gaude! Peña Kalari.

Kuadrila berezi bat dago,
ohiane, Margari, Larraitz,
Jone eta bestelako
"katxonde". Ikasi al dezute,
mutilei ematen beste
hortako fandango?



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g

Tel. 861705

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 862387





ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

UNIBERTSITATEA

LAN MUNDUA



KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE



Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528